



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, “EITB TALDEAREN ONDASUN, HORNIGAI ETA LANGILERIAREN KONTRATAZIOAREN ANALISIA 1999-2003”.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, “EITB Taldearen ondasun, hornigai eta langileriaren kontratazioaren analisisa, 1999-2003” txostena mamitu du. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

EiTB Taldea honako hauez osatua dago:

- Euskal Irrati Telebista Ente Publikoa
- Euskal Telebista, S.A.
- Eusko Irratia, S.A.
- Gasteiz Irratia, S.A.
- Eitbnet, S.A.

1999-2003 aldian EiTB taldeak egindako kontratazio kopurua 384 milioi eurokoa izan zen; horietatik % 36a publizitate eta lehia printzipioak gordetzera behartuak zeuden; gainerakoak, ordea, kontratuen xedea zela-eta, printzipio horiek betetzetik salbuetsita zeuden.

Euskal Irrati Telebista Ente Publikoari dagokionez, Epaitegiaren txostenak adierazten du kontratazioetan -guztira 4 milioi euroan kontrataturiko zenbatekotik 806.000 euroko espedienteak aztertu direlarik-, ez dela bete ondasun, zerbitzu eta hornigaien kontratazioan buru egiten duen arautegia.

Taldea osatzen duten sozietateei dagokienez, erakunde fiskalizatzaileak adierazi du, nahitaezkoa zen kontratuetan publizitate eta lehia printzipioak ez ezarri izana salbuetsita, zuzentasunez bete dela kontratazioaren legezko arautegia.

Langileriaren kontratazioari dagokionez, txostenak ondorioztatu du gorde dela ezargarria den arautegia, salbu eta zenbait alderditan, hala nola, aldi baterako langileria kontratatzeke berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak ez direlako bete, edo Administrazio Kontseiluak organigrama ez duelako onetsi. Honez gainera, taldeak izendapen askeko prozedura erabiliz 103 lanpostu bete ditu, Entearen 5/1982 sorrera



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

legea urratuz; izan ere, ez baitu justifikatu profesionaltasun irizpidea erabili izana zuzendaritza izaera dutenentzat, edota berdintasun, merezimendu eta gaitasun irizpideak, kategoria horretakoak ez direnentzat.

Berebat, fiskalizazio txostenak hainbat akats barne hartzen ditu, legea betetzean eraginik ez badute ere, zuzenketa gai direnak.

Azkenik, 1999-2003 aldian taldearen kudeaketan egin diren hobekuntzak azaleratu dira.